

Prentsa oharra

Nota de prensa



DONOSTIAKO TEMPERATURA IA HIRU GRADU IGOKO DA 2100. URTERAKO

- *Tecnaliak egindako mapa termikoaren arabera, kostatik urrun dauden auzoetan temperatura handiagoa izaten da egunez. Gaez, Urumea ibaiaren ibilguan dauden tokiak izaten dira beroenak.*

Donostiak klima aldaketaren ondorioak jasango ditu datozen hamarkadetan. Hala ageri da Tecnaliak egindako mapa termikoan. Mapa hori Donostiako Udalak 2017an onetsitako Klima Aldaketara Egokitzeko Planari lotuta dago.

Ekologiako zinegotzi Enrique Ramos sozialistak esan duenez, “temperaturak gure hirian zer eragin duen aztertu da”. Hain zuzen, planaren beraren diagnostikoan jadanik esaten zen klima aldaketak Donostian izango dituen lau inpaktuetako bat “bero bolada” deritzenak izango direla.

Diagnostiko horretan jartzen duenez, klima aldaketaren agertoki “beltzengan” hauxe aurreikusten da 2100. urterako:

- **Temperatura maximoa** 2,8°C inguru igoko da. Horrez gain, espero da 20 °C-tik gorako temperatura minimoa duten gauak 5-15 gehiago izatea urtean.

Prensa oharra

Nota de prensa

- Proiekzioen arabera, mende amaierarako, urtean **2-4** bero bolada gehiago izango dira; horrek eta eguneko eta gaueko tenperatura maximoen igoerak eragin zuzena izango dute osasunean.
- 1980-2015 aldian, itsasoaren **azalerako batez besteko tenperatura** 0,19 °C igo da hamarkada bakoitzeko.

Azken urteotan, ugaritu egin dira udan izaten diren bero boladak, eta halako fenomenoek gogor astitzen dituzte hiriak. Klima aldaketaren proiektzioen arabera, bero boladen maiztasuna, intentsitatea eta iraupena handitu egingo dira datozen urteetan. Bero boladen eragin negatiboen artean, azpimarratzekoa da horrek berekin dakarrela heriotza tasa handitzea, zenbait azterketa zientifikok erakusten dutenez.

Hain zuzen ere, 2011. urtean Berlinen egindako azterlan baten arabera, bero boladetan, heriotza tasa handiagoa izan zen hirian, batez ere dentsitate handiko auzo urbanizatuetan. 2003ko udako bero boladan Parisen egindako antzeko beste azterlan batek ere agerian uzten du gauez azaleko tenperatura infragorria duten eremuetan izan zela gehiegizko beroak eragindako heriotza tasarik handiena. Gainera, bero boladek eragin handia dute airearen kalitatean eta etxebizitzetako aire giroturako energia eskarian.

Ramosek adierazi duenez, “2003an, Donostiak bero bolada bat jasan zuen, gutxienez, udan, eta, zenbait tokitan, lau izan ziren gertaera maximoak (30 °-tik gorako tenperatura maximoak eta 19 °-tik gorako tenperatura minimoak, gutxienez hiru egunez). 2003. urte hartan, bero boladarik nabarmenena hamar egunekoa izan zen, eta tenperatura maximoa tarte hauetan ibili zen: 34,8 °C Igeldotik eta antzeko landa inguruneetatik hurbilen zeuden tokietan, eta 43 °C leku jakin batzuetan; hiriko toki gehienetan, 40 °C izan zen tenperatura”.

Hiri klimaren eredu bat sortzea gero eta tresna garrantzitsuagoa da hiri diseinuko neurrien eragina eta eraginkortasuna ebaluatzeko eta hirien klima erresilientzia hobetzeko.

Helburua izan da Donostiako udalerriko mapa termiko bat egitea, eskura dagoen informazio kartografiko eta meteorologikotik abiatuta. Mapa termikoa egiteko, Urbclim mesoeskalako hiri klimaren eredu erabili da. VITO1ek garatu du eredu hori, eta Tecnaliak lankidetzat hitzarmen bat du harekin.

Ereduaren emaitzak Donostian dauden estazio meteorologikoen datuekin baliozkotu dira.

Baliozkotze prozesua amaitutakoan, hainbat indize termiko landu eta mapatu dira, hala nola bero boladen iraupena, maiztasuna, intentsitatea, gaueko tenperatura maximoak, etab.

Prentsa oharra

Nota de prensa

Hiriko temperatura 2003ko informazio meteorologikoa oinarritzat hartuta modelizatu da; izan ere, urte hura bereziki beroa izan zen, eta horixe izan daiteke, klima aldaketaren agertokian, etorkizuneko egoera klimatikoa. Hau da, 2003. urteko hori izan daiteke Donostiako egoera klimatikoa mendearen erdialdera, 2040tik 2060ra bitartean, kontsultatutako informazio iturriekin bat.

Indize termikoen mapatzeari dagokionez, aztertutako aldiko **temperatura maximoaren** batez besteko balioak **23.4 °C-tik 27.7 °C-ra** bitartean aldatzen dira hiriko puntu batzuetatik beste batzuetara. Temperatura maximoaren balio txikienak kostaldetik hurbil dauden eremuei eta hiriko eremu gorenei dagozkie (Igeldo eta Ategorrieta). Temperatura maximoa handitu egiten da itsasoaren eragina galdu ahala, eta temperatura altuenak barnealdeko eta beheerako eremuetan izango dira. Aipatu behar da temperatura zertxobait bat baxuagoa dela Urumearen ibilguari jarraituz; izan ere, temperaturaren erregulatzailerik gisa ere jarduten du ibaiak.

Temperatura minimoari dagokionez, aztertutako aldiko balioak **13.2°C-tik 19.6 °C-ra** bitartean aldatzen dira hiriko puntu batzuetatik beste batzuetara. Temperatura minimoaren baliorik baxuenak landako edo erdi landako eremuetan izango dira, bai eta eremu garaienetan ere, hala nola Igeldon eta Ategorrietan. Hiriaren erdialdean, esan daiteke portaera temperatura maximoaren alderantzizkoa izango dela. Temperatura minimo altuenak Urumearen ibilguan eta inguruko eremuetan izango dira, gauez uraren beroa barreiatu egiten baita.

Gau beroei dagokienez, gutxienerako temperaturaren antzekoa da emaitza, indize horiek erlazionatuta baitaude. Balio altuenak Urumea inguruan izango dira, eta jaitsi egingo dira eremu periferikoetara joan ahala; temperatura minimoaren antzeko portaera dute. Hala ere, unitate txikian, gau beroen aldakortasuna handiagoa da temperatura minimoarena baino, eta desbideratze estandarreko balioak askoz handiagoak dira. Hiriko toki batzuetan, gau beroak % 1,3 dira, 2003ko udako gau guztiekin alderatuz; beste puntu batzuetan, berriz, gauen % 48,8etan temperatura ez da jaitsiko 20°C-tik.

Temperatura igoeraren eta bero boladen eragina arintzeko, aliatu garrantzitsuak dira naturan oinarritutako sistemak, hala nola teilatu berdeak eta patio landaredunak. Life Integrado UrbanKlimaren esparruan, naturan oinarritutako irtenbideen katalogo bat egingo da, hirietan temperaturaren eragina arintzen laguntzeko. Irtenbide horiek dagoeneko ezarri dira hiri askotan, hala nola Parisen eta Kopenhagen; hain zuzen, hiri horietan jadanik badago teilatu berdeen estrategia bat; horren arabera, teilatu laua duten eraikin berriek (30° C baino gutxiagoko malda dutenak) berdeak izan behar dute 2020tik aurrera.